



IÑAKI MURUA
BERTSOLARIA

Euriborra

Dagoen lehortearekin euri hotsa/hitza entzuterik ez bat, edozein baseritarri irribarre goxoa piztuko zaio eta hiritarrak berriz, patxadaz arnas-berrituko ditu birrikak, ez duelako suteen arriskua luzatzeko girorik egingo eta ez daugarrek hegan bidalitako kedar eta gilbak noiz hurbilduko kezka lotaratuko.

Baina hitzaren bigarren osagaiak borra du berekin eta hori ez da euriarekin ondo lotzen, agian kazkabarra, harria, txingorra... danborra jotzen... baratzeak, teilatuak, zuhaixkak eta gainerakoak xehatuz... inor ez du horrek lasaituko; arnas berritzea kostako zaio izakiari, izadiari!

Hala ere, gora doa Euriborra. Mende laurden barru itzuliko duela sinatuta dirua banketxetik atera duen gazteak, hilean berrehun euro gehiago ordaindu behar omen ditu, sinatu zuena baino, nola eta ez duen sinatu ordainketa finkoa hogeita bost urte horietarako. Esan liteke Euriborraren kapritxozko aldaketak hipoteka hartzaile mota bakarra izorratu duela, baina besteak ere ateratakoa ordaintzeko komeriak izango ditu, orokorrean bizitzak gora egingo baitu bientzat. Bankuak ez du zer galdurik; bazkideen artean banatzeko irabazi gutxiago, baina etxe gabetuen zerrendan azaltzeko arriskua bezero biek dute; bankuek lehengoan segi eta listo! Au-

rreko aldiko porrotak, itzuli beharreko milioiak eta abarrak ahaztu eta kito. Zer axola zaio hori dena bere esku ahurrean jarri zaion/duen hari?!

Etxegabetzeak noiznahi gerta dakizkiguke gutxien uste dugunean eta uste dugunari. Gainera, klima aldaketak-edo itsasoko uren maila dezente igo omen duenez, itsas ertzetako etxebizitzak arriskuan dauzkagu eta bizitokia hondartzatik hurbil izatea lehenetsi zuen gizarteak, gizarte turistifikatuak, as-teburuetako parranda, botiloi, zarata, borroka, atariko pixak... deskantsua eragozten dionak, badu arrazoirik erne egoteko.

Landa guneko herrixketan bizi garenontzat berriz, hirira joateko tentazioa zailtzeko gomendioak irakurri ditut egunotan, izan ere autoak aparkatzeko erraztasun gehitxo ematen omen dizkigute eta horrela jende oldeak pilatzen, hirietako erdiguneak, oinezkoentzat soilik direnak, lepo beteaz hirirako ura bilatzen duten ur-putzuak ez bezala!

"Nolanahi ondo dagoena edozein moduz gaizki zagok!", zioen gure auzoko aitona batek, ez zuen arrazoirik falta! Egun, erdi gunea edo "hiri erdia" deituak duela gutxi alde zaharra zuen izena eta aurki gazteak ere alde egin beharko du...

Horra, hiri gorra, ezaba/borra deza-keen Euriborra! ●



EDU ZELAIETA ANTA
IRAKASLEA ETA
IDAZLEA

Iparra non den

Ozeano Atlantikoaren kalea. Ozeano Barearen kalea. Mediterraneoaren hiribidea. Kantabrikoaren hiribidea (sic). Istora ibaiaren kalea. Osegarpe ibaiaren kalea. Erraz aurkitzen da ura Gasteizko kale izendegian bilaketa eginez gero; hor-hemenkako putzu gezak eta gaziak agerian.

Ankara ibilbidea. Estrasburgo ibilbidea. Vilnius kalea. Eneida kalea. Europar Batasunaren plaza. Berpizkundearen plaza. Mito fundazionalak ikus ditzakegu, batez ere XXI. mendean eraikitako auzo berrietan; hiria Arabako Lautadan barrera zabaltzen lagundu dutenak.

Valladolid kalea. Madril kalea. Latinoamerika plaza. Karlos I. Enperadorearen plaza. Sofia Erreginareen hiribidea. Gurutze Santuaren hiribidea. Odolezko ahaidetasunaren berri eman nahi du zenbait testigantzak; iragana eta oraina mataza berean ehunduak daudela oroi-tarazteko-edo.

Unescoren ibilbidea. Unicefen ibilbidea. Aalborgeko Kartaren kalea. Atenasko Kartaren kalea. Tokioko Itunaren kalea. Montrealeko Itunaren kalea. Ez bide dago galtzerik babazorroen hiriburu multikulturallean; iparra non den adierazten dute beti nazioarteko hitzarmenek. ●